

Gogoan hartu damutu baino lehen

#E2K
BROKERNET

Red Nacional de Corredores de Seguros

Zure artekariak beti emango dizu informazioa... Ez bazaude seguru, bila gaitzazu

Hileroko buletina
Nº 72 / Otsaila 2019

Ainhoa, gymera noa



1976an, Gary Gilmorek 2 lagun erail zituen, Ameriketako Estatu Batuetan, lapurretan egin ondoren. Fusilamendu pelotoi baten aurrean hiltzera zigortu zuten. Tiroak hartu aurretik, hauxe esan zien: *Let's do it* ("egin dezagun").

Hamarkada bat geroago, Nike kirol marka aurrera atera ezinik zebilen. Horren publizitate agentziak erailtzaila haren agurrean aurkitu zuen inspirazioa, eta iragarki bat grabatu zuen, 80 urteko korrikalari batekin; honela zioen amaieran: *Just do it* ("egizu, besterik ez"). Lelo horrek indarrean jarraitzen du oraindik, eta pertsona batzuek gimnasioan sartzen direnean gogoratzen dute.

Urtarriletik maiatzera, izugarri igotzen da osasunarekin, fitnessarekin eta edertasunarekin lotutako Googleko bilaketen kopurua. Urte berrirako ezarritako helburuak bete eta liraindu egin nahi dugu, Aste Santuko "bikini operazio"rako. Eta helburu horrekin ematen dugu izena gimnasioan, baina... bizikletaren pedalei emanez edo pisuekin lesionatzen bazara, zer? Nor egiten da kargu?

Erantzun zuzena "makinak huts egin izanaren edo egin ez izanaren" arabera da. Izan ere, behar bezala funtzionatzen ez bazuen, gimnasioarena da erantzukizuna. Orkatila gaizki zapaltzeagatik bihurritu baduzu, berriz, zurea da errua".

Nolanahi ere, ia autonomia erkidego guztiek eskatzen dute Erantzukizun Zibileko aseguru bat, negozioa irekitzeko lizentzia eman aurretik. Beraz, gimnasioaren Erantzukizun Zibila (EZ) arduratuko da hirugarrenei eragindako kalteez.

Euren lasaitasuna eta segurtasuna areagotzeko, arrisku anitzeko aseguru ere kontratatu ohi dute gimnasioen jabeek. Sutea, berreraikitze gastuak, makinak, uraren ondoriozko kalteak eta abar hartzen ditu barnean. Horrela, zoritxarrak ez ditu euren negozioak hondatzen.

Eman duzu izena gimnasioan? Zeren zain zaude? *Current Biology* aldizkariaren azterketa baten arabera, gimnasia maiz joateak memoria sustatzen du.

Bizi aseguruak eta hipotekak: ez utzi bankuak hertsu zaitzan

Ez gara gogorazten aspertzen: bankuek ezin zaitzakete behartu zure hipotekarekin lotutako bizi aseguruak kontratatzea. Halaxe dio Europako 2014/17/EB zuzentarauak, eta Espainiako hurrengo Hipoteka Legeak ere bilduko du.

Hauxe esaten dizu bankuak: "aseguru hauek gurekin kontratatzen badituzu, hipotekaren interesak murriztuko dizkizugu". **Gezurra!** Bankuek eskaintzen dituzten produktuak garestiagoak izan ohi dira, eta prestazio berberak edo okerragoak eskaintzen dituzte. Eta hauxe da okerrearen: ez dute benetan kontratatzen ari zarena jakiteko beharrezko informazio guztia eskaintzean.

Ez da nahitaezkoa hipotekarekin bizi aseguru bat kontratatzea; izan ere, suteen estaldura duen etxe aseguru bat kontratatzea bakarrik behartzen du Legeak, bankuari zor diozun diru-kopurua besteko berreraikitze-zenbatekoa duena.

Bizi aseguru oso gomendagarria da zirkunstantzia berezietan (langabezia, gaixotasuna) edo heriotzari (kasu horretan, karga horretatik salbuetsita geratuko litzateke familia) aurre egiteko.

Bankuarekin dituzun aseguruak ezeztatuz nahi badituzu, aukera hobeak aurkitu dituzulako, burofax bat bidali behar duzu aseguru-etxera eta finantza-erakundera hila bete lehenago, eta egun horretan bertan beste poliza bat egin.

Hori bakarrik egin behar da. Dakizun bezala, gure artekaritza-bulegoan behar bezala aholka zaitzakegu.



Aurreztea ez da gordetzea bakarrik, baita xahutzen jakitea ere



Baliteke erretiroa urrezko adina izatea: egunerokoaz gozatuz lasai-lasai bizitzea, betebeharrak gabe; lanera joateko goiz jaiki behar ez izatea. Hala ere, beldurra ematen digu erretirora iritsi eta bizi-kalitatea galtzeak, ezusteko gastuei edota ohikoei aurre egin ahal ez izateak. Horregatik, oso garrantzitsua da aurrezten hastea, eta zenbat eta lehenago, hobe.

1. Sistematikoki Aurrezteko Plana (PIAS).

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Legeak sortu zuen, eta sistematikoki aurrezteko tresna bat eskaintzea du helburu; zergak ordaintzetik salbuetsita dago errenta, baldin eta 5 urte-tik gora mantentzen bada eta biziarteko errenta modura jasotzen bada. Gehiengo ekarpena 8.000 €-koa da urtean, eta prima metatuak ezingo dira izan 240.000 €-tik gorakoak zergadun bakoitzeko. Guztiz edo partzialki erreskata daiteke lehen unetik, baina zerga-salbuetspena galduko litzateke.

2. Epe Luzera Aurrezteko Banakako Aseguruak (SIALP).

26/2014 Legeak aurreko PFEZ Legea aldatu zuen, eta aurrezki tresna berri hau sortu; kasu honetan, baina, inbertsiogile txikiak zuzenduta dago. Ekarpena ez da izango 5.000 €-tik gorakoa, urtean; kapital gisa bakarrik atera daiteke eta planaren zenbateko osoa atera behar da,

ezin da ateratze partzialik egin. Produktu honek erreskatea gutxienez inbertitutako diruaren %85 izango dela bermatzen du. Etekinak PFEZetik salbuetsita daude, 5 urte baino lehen erreskatatzen ez badira, betiere.

3. Aurreikuspen Plan Aseguratuak (PPA).

PFEZaren erreforma partzialaren 46/2002 Legeak arautzen ditu. Aseguru kontratu bat da eta erretiroan sortutako kapital bermatua ordaintzean datza. Ezin da erreskatatu, denbora luzeko langabezia edo gaixotasun larri kasuan ez bada; kasu horietan, ez dago zigorrik.

4. Unit Linked.

Aurrezki produktu bat baino gehiago inbertsio produktu bat da, eta aseguruaren hartzaileak bere gain hartzen du inbertsioaren arrisku guztia. Ekarpinari dago-kionez, ez dago mugarik, eta horren erabilgarritasuna erabatekoa da.

Beste hainbat aurrezki modalitate ere bada: kapital aseguru bermatuak, biziarteko eta aldi baterako errentak, errenta aseguruak... Garrantzitsuenak da horiek kontratazioa ahalik eta pertsonalizatuena izatea, benetako beharrak eta zirkuntantziak aintzat hartuta eta, horretarako, onena da aditu eta profesionalengana jotzea, artekaritza-bulegokoengana, adibidez.

Ezkonbidaia ala samin-bidaia?

Zenbat xahutuko duzu ezkontzan? Eta ezusteko batek ezkonbidaia bertan behera uztera behartzen bazaitu, zoritxarrez, zenbat galduko duzu?

San Balendinek ez du utziko hori gertatzerik, baina badaezpada ere, bidaia aseguru batek bidaia errenta edo bertan behera uztea, helmugako osasun laguntza, hegaldien atzerapena, ekipaje-galtzea, aberriratzea eta erantzukizun zibila estaltzen dituela jakin behar duzu.

Merezi du.

Gomendio



Ezkontzak banandu arte

Quinn Duane amerikarra ezkontza baino ordu batzuk lehenago utzi zuen senargaiak. Ezin izan zuen banketea ezetzatu eta banketearen kostua, 35.000 dolar, kalean bizi ziren 90 pertsona bazkaltzera gonbidatzeko erabiltzea erabaki zuen.

Ospakizuna ezetzatzeko aseguru kontratatu izan balu, bere dirua berreskuratuko zukeen. Hornitzaileen kiebrea, elizkizuneko arropa, opariak, loreak, garraioak eta abar ere hartzen ditu barnean...

Ez duzu, oraindik? Nik nahi dut, bada!

